

Migrazio saldoak 8.871 pertsona ekarri Euskal Aera 2016an


Hiru lurraldeek eta hiru hiriburuek saldo positiboa

2016an migrazio-saldo positiboa berriz Euskal AEn: Etorritakoak joandakoak baino 8.871 gehiago (2015ean 3.362, bada alderik) Eustaten datuen arabera.

Bizkaiak 4.405 pertsona irabazi (migrazio saldo handiena zifra absolutuetan); Gipuzkoak 2.787; Arabak 1.679. Bilbok 1.524 pertsona; Gasteiz 1.571; Donostiak 997.

Euskal AEn eta gainerako erkidegoen arteko mugimenduetan, 2016an +1.974 da pertsona-saldoa, 2008an hasitako joerari eutsiz. Espainiako nazionalitatea dutenez ari bagara, migrazio saldoa +797 da; atzerritarrez, +1.177.

Grafikoa: Euskal AEko emigrazioak, erkidegoen arabera, nondik-nora



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Atzerriarekin, +6.897 pertsonako saldoa; joan zirenak etorri zirenak baino gutxiago. Espainiako nazionalitatea dutenez ari bagara, migrazio saldoa -796; atzerritarrez, +7.693.

Emigratio tasak txiki samarrak

Erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2016an Euskal AEko mila biztanletik 33 mugitu dira. Beste erkidegoetan, 4 puntu gehiago, %37. Araban %38,2; Gipuzkoan %32,2; Bizkaian %31,7.

Katalunia, Madril, Errioxa, Nafarroa eta Balear uharteekin Euskal AEk migrazio saldo negatiboa du; gainerakoekin positiboa.

Euskal AEra, batez ere, ondokoetatik etortzen da jendea: Gaztela eta Leon, Madril, Kantabria, Katalunia, Andaluzia, Valentzia.

Euskal AEko joale gehien erakarri duten erkidegoak ondokoak dira, eta hurrenkera honetan: Madril, Gaztela eta Leon, Katalunia, Kantabria, Andaluzia, Nafarroa. Seion artean gure erkidegotik besteetara joaten direnen %40 jasotzen dute.

Emigratzaileen batez besteko adina, 36,1 urte, handiagoa da etorkinena (33,3) baino. 21-40 urte bitarteko pertsonen migrazioen %57 eta emigrazioen %54.

Etorkinen %51 gizonak dira, %49 emakumeak; joaleen artean, %54 eta %46.

Immigratzaileen %56 eta emigratzaileen %44, atzeritarrak

Atzerriko nazionalitatea duten immigratzaileak, 2016. urtean, 22.351 pertsona; gure erkidegora izandako sarreraren %56. Haietatik 6.602 beste erkidegoetatik etorri ziren, batez ere Katalunia, Madril, Andaluzia, Valentzia, eta Gaztela eta Leondik. 16.149 atzeritik zuzenean.

Gure erkidegotik badoazen pertsonen %44 atzeritarrak dira; eta haien arteko %61 atzerrira joango dira. Guztira, 13.681 atzeritar joan zitzaizkigun. Atzeritarren saldoa, +8.670.

Euskal biztanleak etxez aldatzen direnean %70etan gure erkidegoan geratzen dira

Euskal biztanleriaren %9,9k bizileku aldaketaren bat egin zuen 2016an; %67tan Euskal AEn bertan. 2015eko zifra berberak ia.

Euskal AEn 217.064 aldiz aldatu da ohiko bizilekua. 96.478 kasutan udalerrian bertan. Erkidego barruko mugimenduak, bai jatorria, bai helmuga Euskal AEn, 49.205.

Erkidegoz kanpotikoa, 40.126 migrazio. Jatorria gure erkidegotik kanpo eta helmuga Euskal AEn. Haietatik, 19.060 atzeritik.

Erkidegotik kanporako 31.255 migrazio, jatorria gurean eta helmuga gure erkidegotik kanpora. 12.163ren norakoa, atzerria; 2015ean baino %1,4 gehiago.

1. taula.-migrazio mugimenduen eta saldoen bilakaera. Euskal AE 1998-2016

Urtea	Emigrazioak		Immigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	18.383	102	22.286	278	3.903
2001	20.382	113	28.243	352	7.861
2002	22.304	123	28.386	354	6.082
2003	25.987	144	30.851	385	4.864
2004	24.743	137	32.859	410	8.116
2005	24.390	135	36.646	457	12.256
2006	30.641	169	42.468	530	11.827
2007	29.894	165	46.729	583	16.835
2008	29.941	165	44.630	557	14.689
2009	31.815	176	38.368	479	6.553
2010	33.425	185	38.591	482	5.166
2011	32.819	181	41.011	512	8.192
2012	34.589	191	34.362	429	-227
2013	35.943	199	33.987	424	-1.956
2014	31.889	176	35.491	443	3.602
2015	32.555	180	35.917	448	3.362
2016	31.255	173	40.126	501	8.871

Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62